



Fitxa teknikoa

Un día en la playa. Bernardo Carvalho. El Zorro Rojo argitataletxea, 2010

Liburuaren aurkezpena

Kontakizun grafiko honek narrazio erronka bat proposatzen digu; izan ere, hitzik gabekoa da, irudien bitartez kontatzen digu istorio bat, pasartez pasarte. Bilbe edo trama sinplea du kontakizunak, baina narrazioaren pasarte bakoitza konnotazioz beterik azaltzen zaigu eta gai askotan sartzeko aukera eskaintzen digu. Naturaren hondaketa sistematikoak protagonistari sortzen dion kezka eta nahigabeak hartzen du kontakizunean lehenengo planoan. Ba al dago irtenbiderik?

Nola kontatu

- Irudiei begiratu eta istorioa osatu
- Istorioa osatu pasartez pasarte

Proposamenak bideratzen

- Ikusten dena eta ikusten ez dena kontrajarrian, zer ikusten dugu?
- Ikusten ez duguna zer da?

Proposamenak zehazten

- Zer sentitzen eta zer pentsatzen du protagonistak?
- Zer iruditzen zaizu zuri istorioan gertatzen dena?
- Bost lerrotan idatziko duzu ala irakasleari diktatuko al diozu bukaera desberdin bat?

